Sobre el fondo de la cuestión, que es la autenticidad o no de los grafitos de Veleia, tengo que confesar que en aquellos años cambié de opinión en dos ocasiones; desde la sorpresa inicial y la incredulidad inducida por las valoraciones críticas en los medios de comunicación de varios lingüistas pasé a una actitud más abierta a causa de una conversación casual que tuve ocasión de mantener con Endrike Knörr, antiguo compañero en un proyecto común, en la que me manifestó su opinión favorable a la veracidad de los grafitos y su importancia científica. La competencia académica de Endrike Knörr así como su honestidad personal eran para mí argumentos de peso. Lamentablemente, aquella fue la última vez que ví a Knörr con vida, pues falleció meses después.

Más tarde, enfrentado a los testimonios y afirmaciones categóricas de los "expertos" de la CCA de la DFA en la sesión de la comisión de Cultura de las JJ.GG., a la que yo asistía como juntero que era, salí de dicha sesión con la duda de si Knörr no estaría equivocado y estábamos ante una falsificación chapucera. Sin embargo, fue pocos meses después, cuando conseguimos que la DFA nos entregara los informes parciales de los expertos y los pude estudiar, que mi posición volvió a inclinarse hacia la veracidad -pero en este caso no por argumentos de autoridad de uno u otros sino por mis propios análisis de las supuestas pruebas de falsedad- para acabar concluyendo que en la sesión de la comisión de Cultura la diputada y los expertos que le acompañaban nos habían engañado como a chinos.

Descubrí que en la fecha de autos del 19 de noviembre no existía el supuesto Informe de la CCA y que, por lo tanto, el fundamento de la Orden Foral era fraudulento; descubrí que a la citada fecha solo constaba un informe parcial (sectorial) de uno de los lingüistas de la CCA; descubrí que los restantes informes parciales (sectoriales) de los otros miembros de Orden Foral; descubrí que ni siquiera a posteriori existía un Informe de Conclusiones de dichos informes parciales firmado preceptivamente por todos los miembros de la CCA y que el único informe que existía y con la misma fecha de la Orden Foral era uno firmado por el director del Patrimonio Histórico-Cultural y Arqueológico de la DFA, es decir, de un subordinado de la diputada López de Lacalle que ejercía de secretario de la CCA, informe particular que a su vez remitía al informe inexistente de la CCA; descubrí que los argumentos de falsedad aducidos por los "expertos" eran en su mayoría valoraciones subjetivas, cuando no afirmaciones objetivamente erróneas; descubrí un rosario de falsedades sobre la implicación científica de la UPV, mediante un convenio de colaboración, en la elaboración de un nuevo Plan Director de las excavaciones y en el nombramiento de uno de los miembros de la CCA como nuevo director del yacimiento, en un claro caso de pago por los servicios prestados; descubrí, en fin, actuaciones oscurantistas en relación al interés de determinadas instancias del Vaticano sobre el tema.

A lo largo de los años siguientes, he tenido la oportunidad de estudiar decenas de informes de expertos de varias nacionalidades, doctores, licenciados, técnicos, científicos, especialistas en arqueología, lingüística, epigrafía, latinistas, euskerólogos, paleopatólogos, egiptólogos, geólogos... todos los cuales coinciden desde sus respectivos campos en que no existe ni una sola prueba "objetiva" que avale la tesis de la falsificación y que ponen en evidencia la inconsistencia cuando no la frivolidad de los informes parciales de la mayoría de los "expertos" de la CCA de la DFA.

La OF 444/2008 fue un acto administrativo que destruyó la honorabilidad y la credibilidad profesional de un ciéntifico competente y honesto y en mi opinión fue una gran injusticia; pero la demanda judicial de la DFA contra esa misma persona por atentar contra el patrimonio historico-arqueológico como responsable de la supuesta falsificación, admitida a trámite pero no resuelta en ningún sentido durante más de seis años por la Justicia, y por lo tanto sin que dicha persona haya podido defenderse ante un tribunal estando ya "mediáticamente condenado" es objetivamente, mas allá de toda opinión personal, una injusticia indecente. Una cosa es estar injustamente condenado a muerte (en este caso profesional y moral) y otra tener sobre la cabeza durante seis años una petición de pena de muerte sin posibilidad de defenderte.

Yo acuso a las instituciones políticas, administrativas, judiciales y académicas implicadas por acción u omisión en este caso, así como a los medios de comunicación y agentes políticos cómplices cobardes, de que se ha cometido y se sigue cometiendo una iniquidad contra Eliseo Gil Zubillaga y sus compañeros de Lurmen. Llegados a este punto, no queda sino exigir al Juzgado de Instrucción nº 1 que finalice de una vez su labor y pase la causa al juez correspondiente para su vista y para que los acusados puedan defenderse o bien, en su caso, que la demanda sea archivada y sean restituidos la fama y el honor de las personas injustamente acusadas y mediáticamente condenadas en este vergonzoso caso.

DEIA

Erraztiolatza eta Segura aurrez aurre



"Herri librea bere sustraien bila dabil beti, lurrari gogor heldu eta zutik egoteko. Herri libreak pizturik eutsiko dio arbasoek utzitako ondarerik preziatuenari (…), ahanzturan erori gabe, bizirik jarraitzeko". Hitz horiekin eman zioten hasiera *Bidean galdutako izana eta izena. Erraztiolaza – Segura 1256* antzezlanari Plaza Zaharreko Lagunak taldekoek, eta orain DVD formatuan argitaratu dute lana Nabarralderen laguntzarekin.

Alfontxo VIII.aren Gaztelako tropek Gasteiz setiatu eta errenditzera behartu zuten. 1200 urtean sartu ziren Jakue bidean barrena Baionaraino. Bertan, 1204 urtean, gaixotu eta herioa gertu ikusita hartutako lurraldeak Nafarroari itzuliko zizkiola idatzi zuen erregeak bere testamentuan. Alfontso sendatu zen, baina, sekula ez zuen idatzitakoa bete.

Horren ordez, tokian tokiko jauntxoak Nafarroaren kontra jarri eta gaizkileen muga bezala ezagutzen den horretan liskarrak bultzatu zituen. Euskal identitatearen batasuna banandu zuen, batetik nafarrak eta bestetik baskoak; gaztelaniak euskara ordezkatu eta 1512ko Nafarroa Garaiaren konkista antolatu zuen.

Segurako herritarren parte-hartzea zuzena izan da Bidean galdutako izana eta izena antzezlanean, izan ere, 40 pertsona baino gehiago aritu dira aktore eta muntaia lanetan. Horietaz aparte, bertako abesbatzak ere doinua eta ahotsa jarri dizkio lanari. Emaitza, Nafarroako Erreinuaren historiako kapitulu ezinbestekoa gogora ekartzen duen obra bat da, betiere memoriaren zulatzea ekiditera bideratzen dena. DVDa dagoeneko eskuragarri aurkituko duzue, 12 eurotan, Nabarralderen webgunean, Hernani Errotzenen bulegoan eta Erraztiolatzako Erakustokian.

Euskera en la corte del rey Carlos III

Lola Cabasés Hita

Una carta de 1416 en lengua vasca entre el secretario real y el responsable del Tesoro del Reino de Navarra sobre información tributaria ha sido investigada por Pello Monteano, que ve en ella la punta del iceberg de la realidad lingüística a finales del Medievo.

El euskera fue lengua utilizada con rango oficial en la corte de Carlos III y la élite político-administrativa que gestionaba la actividad pública de la Navarra de finales de la Edad Media era bilingüe, amaba este idioma y lo utilizaba en escritos oficiales y conversaciones. Así lo atestigua un documento datado en 1416 y suscrito por dos personas del círculo más próximo al monarca navarro que en aquel tiempo tenía su residencia oficial en Olite. Pello Monteano, técnico superior del Archivo de Navarra, ha realizado el primer estudio histórico en torno a un documento encontrado en 1969 y que ha sido objeto de análisis lingüísticos pero nunca de índole histórico. Considera Monteano que debe ser conocido a nivel popular que "el documento en euskera más extenso que disponemos antes de la Edad Moderna es navarro y prueba que las élites medievales navarras hablaban, apreciaban y sabían escribir el euskera, aunque luego nos dejaron todos sus documentos en lenguas escriptorias o administrativas".

Monteano se topó con este valioso documento hace muchos años, con motivo de su exhibición en una exposición organizada por Euskaltzaindia celebrada en su localidad natal, Villava, hace treinta años. Era un chaval que desde siempre acarició la idea de dedicarse a la historia, a los viejos papeles que como éste, que vio en una vitrina, explican, entre otras muchas cosas que, por lo que fuimos, somos.

Como señala Monteano, el medievalista José Mª Lacarra (Estella, 24 de mayo de 1907-Zaragoza, 6 de agosto de 1987) siempre sospechó que, trabajando con los documentos navarros medievales, estaba reconstruyendo el pasado de un pueblo que escribía en un idioma que no era el que hablaba. Confiaba en que algún día se descubrieran documentos que lo mostraran claramente. "En 1969, el archivero e historiador Florencio Idoate (Oricáin 1912-Pamplona), encuentra cosido a un libro de cuentas, el que aún hoy es el texto escrito en euskera más extenso que se conserva antes del siglo XVI". Es esta famosa carta que Monteano fecha en el verano de 1416, es decir, va a hacer ahora 600 años.

El documento en cuestión es una breve carta intercambiada entre Martín de San Martín, secretario del rey Carlos III, y Matxin de Zalba, responsable del Tesoro de Navarra. Ambos incluyen palabras en euskera, demostrando que ambos, originarios de Pamplona y San Martín de Unx, respectivamente, y pertenecientes al círculo más cercano al monarca navarro, estaban habituados a hablar y a escribir también en euskera, que sería sin duda su lengua materna, considera Monteano.

LA CARTA DE 1416

"Estamos ante la punta del iceberg"

Analiza Pello Monteano el texto, y coincide con quienes hasta ahora lo han estudiado desde la perspectiva lingüística. "El euskera se utiliza con asombrosa corrección gráfica y gramatical, incorporando incluso neologismos fiscales. Su variedad dialectal corresponde al euskera que se hablaba en la Cuenca de Pamplona y es plenamente comprensible para un vasco hablante actual, para un conocedor del batua", asegura.

En su opinión "desde el punto de vista de la sociolingüística histórica de Navarra, esta carta es una especie de *piedra de Roseta*. Muestra que la élite político-administrativa del reino era, en realidad, bilingüe, y que utilizaba el dominio de la escritura, del euskera y de las lenguas romances, como instrumento de poder".

Su investigación va a más al estimar que este escrito, conservado cosido en un libro de cuentas hasta su hallazgo por Florencio Idoate, "rompe el estereotipo de la convivencia de lenguas en la Navarra medieval, contraponiendo el euskera -una lengua desprestigiada, propia de campesinos y relegada al ámbito doméstico- y el romance navarro -la lengua de las élites a la que se reservan las funciones superiores de la administración y la cultura, además de ser la lengua habitual de las poblaciones ribereñas del Ebro-. El documento demuestra que la élite navarra habla y, lo que es más importante, sabe escribir en euskera". La carta, en opinión de Pello Monteano "es la punta del iceberg"(...).

DIARIO DE NOTICIAS

Ferminico

Bingen Amadoz

La polémica surgida estos días en torno a la exposición *Desenterrados* nos hace retroceder inevitablemente a épocas pretéritas. Me ha recordado para empezar aquel cuento tan divertido del flautista de Hamelin. Abel Azcona ha sido entre nosotros el virtuoso flautista que ha sido capaz de sacar a la luz a los seres que viven en lo mas recóndito de la Iglesia católica. Arrastrando el incienso de lóbregos rincones donde habitualmente se esconden del mundo que avanza, se han reunido en la vía pública para regocijo de propios y extraños que ya se habían olvidado de ellos. Resultaban tan ridículos en sus manifestaciones extemporáneas y extremistas que los espectadores han reído la gracia a carcajadas. Sé de quien se arrimó al grupo de rezadores creyendo que se trataba de una pantomima, un espectáculo teatral que representaba escenas cómicas de un pasado lejano hasta que se dio cuenta de que la cosa iba en serio. Entonces se echó a correr asustado porque lo que al principio puede parecer risible no lo es en absoluto cuando se descubre la calaña de las gentes de lo oscuro.

Se han creado imágenes plásticas que seguramente pasaran a la historia. Eran cuadros de una belleza antigua que resucitaban a Domenico Theotokopoulos. Yo no podía evitar recordar las imágenes del Greco con sus frailes, sus viejas de caras alargadas, sus jóvenes barbilampiños de semblante penitente.

Y todo ello ha sido mérito sin duda de Abel Azcona. Sus acciones serán muy discutibles tanto como innegable es el éxito que ha conseguido. Abel me parece un chico inteligente, con un pasado terrible y un futuro impredecible. Yo no quisiera que fuera tan negro como él lo pinta. Cualquiera entiende que en el agujero de su provocación solo han caído los mermados de espíritu, los que no ven más allá de sus narices, aquellos que quisieran tener en formación militar hasta a las caprichosas moscas. Pasando del tema hubieran salido ganando. De esta manera solo los podemos considerar claros perdedores porque no todo lo que se ha visto ha resultado gracioso y bello.

Mientras los alborotadores pedían respeto para sus escandalizadas conciencias se han pasado de la raya y mucho. ¿Acaso no sabían que nuestros abuelos masacrados en las cunetas escuchaban de sus verdugos el grito de "Viva Cristo Rey" antes de ser asesinados? Sí que lo sabían y lo han hecho además en el lugar donde se estaba reivindicando la memoria de las víctimas. Los que gritaban "Viva Cristo Rey" eran pocos. Los que respondían con vivas eran muchos. Se han atrevido incluso a pedir la ejecución del alcalde de Iruñea. ¿A qué espera la señora Alba para poner en marcha medidas contra la apología del terrorismo? ¿Necesita que le refresquen la memoria para recordar las sangrientas madrugadas del 36 en Azkoien-Peralta?

Estas *humildes* gentes que nacen plebeyas y necesitan convertirse en marqueses para no parecerse a los campesinos y obreros que usan nombres y apellidos corrientes se enamoran de los rangos nobiliarios y de los mármoles. Si son de Carrara, mejor. Piden a los demás lo que ellos son incapaces de ofrecer. Exigen respeto para su credo algo que podría resultar comprensible si no acompañaran su reivindicación de gritos estentóreos que no respetan ni la memoria, ni los sentimientos, ni la vida de los demás.

Los extremistas religiosos son así. Se llamen ultracatólicos, Estado Islámico, ultraortodoxos judíos, sectas fanáticas. En general están cortados por el mismo patrón. Todo por y para Dios pero sin contar con las personas. Defensa a ultranza del no nacido y sable a degüello contra los que han nacido y no les gustan.

Hace 27 años que nació Abel Azcona. Su madre no quería que él naciera y él hubiera preferido no nacer. En una misma época a su madre no le dejaron abortar y en Iruñea se juzgó a tres ginecólogos porque habían practicado, supuestamente, un aborto. Los que ahora se rasgan las vestiduras porque les han tocado el rito vociferaban entonces contra el aborto. Los periodistas llamábamos *Nascituru* a su abogado defensor, que finalmente consiguió que los abortos de las mujeres navarras resultaran a nuestra administración mucho más caros que a ninguna otra del Estado. Es todo lo que lograron los extremistas religiosos, eso y ensuciar el nombre de una ciudad que mayoritariamente y por fortuna no piensa como ellos. "Dejad nacer a Ferminico": proclamaban a los cuatro vientos. ¿No queríais que naciera Ferminico? Pues ahí lo tenéis: se llama Abel Azcona.

DIARIO DE NOTICIAS

Zahartzean, zapatagin



Ana Telletxea

Lotsatzen da bere idazteko moduaz, esaten du ez dakiela non bereizi behar diren hitzak edo letrak, eta h-ak non jarri behar diren ere ez dakiela… "9 urte nituela aldatu baininduten eskolatik, eta…". Oso presente egiten du hizketan eskolatik "kendu" zutela, "eskola uztea" bera baino gordinagoa dela azpimarratu nahian. Gure amatxik 89 urte beteko ditu laster eta WhatsAppa erabiltzen badaki.

80 urte zituela hasi zen, familiak sustatuta, liburu bat irakurtzen. "Mantso ariko naiz, ez dut zuek bezainbesteko abileziarik; gainera memoria txarrekoa naiz eta egun batetik bestera ahazten zaizkit bezperan irakurritakoak". Halaxe hasi zen, mesfidati.

Handik gutxira "badakizu zenbat bidaiatu naizen etxeko egongelatik atera gabe?". Eta ni neu bederen, urtu ninduen. "Aizu, ez dakizu zer sufrimendu dagoen munduan barna, a zer bizimolde zailak dauden urruti haietan".

Gaur ilobak, seme-alabak eta beste, denak, telefonoarekin gora eta behera ikusten gaitu, eta "taldearen" parte sentitu nahi du. Seme-alabek telefono adimentsua, ordenagailua, tableta eta abarrak erosi dizkiote txanpaka, eta denbora tarte laburrak eskaintzen badizkie ere (gurekin alderatuta, noski), laketzen da teknologiarekin!

Etxalde batean neskame, merkatuan saltzaile eta jostun aritu da gure amatxi, artean ere sei seme-alaba hezita. Salto handia sumatu du garaiko eta egungo bizimoduen artean. Aldian aldikoari moldatzea baino ez dagoela esaten du. Gugana hurbiltzeko saiakera egin du eta utzi ditu beldurrak; gure "hizkuntza" erabiltzen ikasi du. Meritu handia da hori. Eta saiakera horrek are maitagarriago egiten du.

Teknologia gugan da. Gustatu ala ez. Adineko jendeak ere gizarte digitalean aktibo izan nahi du, e-bazterkeria izan baitago eta baliabide berri hauek integratuak sentiarazten laguntzen diete. Sare sozialek lotura afektiboak egiteko balio badiete, gogo handiagoa agertzen dute. Belaunaldi talka horretan, gizartearen iraultza horren baitan, autoestimu pixka bat injektatzea ez da hain zaila, hain moldakaitz senti ez daitezen, onartuak senti daitezen.

Zahartzean, zapatagin. Halaxe esaten digu maiz Anitak, eta berak lotsaz badio ere trakets sentitzen delako, guk harrotasunez begiratzen diogu. Bejondeizula, amatxi!

Zerk ematen die min

Beñi Agirre

Cisneros kardinala Gaztelako erregeordetzara iritsi zenean, espainiarrek Nafarroa Garaiko gaztelu guztiak lurrera bota zituzten. Hiru arrazoi nagusi zituzten: bata, Albako dukearen eskutik konkistatutako Nafarroan nork agintzen zuen erakutsi eta biolentzia bortitzena erabiltzeko gogoa zutela adierazi beharra; horregatik, adibidez, suntsitu eta arpilatu egin zuten Donibane Garazi. Bigarrena, Nafarrek ongi ezagutzen zituzten gaztelu haiek independentzia berreskuratzeko ez erabiltzea. Hirugarrena, eta ez horregatik txikiena, hiritar haiek eta etorkizunean Nafarroatik igaroko zen jendeak herri subirano baten bortxazko konkista gogora zezakeen ezer bistan ez geratzea. Zuk errango duzu, "Nafarroa bortxaz konkistatua izan zen", eta erantzungo dizute, "Non daude frogak?".

Hirutik hirurak sinatuko lituzke Niccolo Machiavelli estratega eta idazleak. Biolentziaren monopolioa justifikatu, militarki hobekien babesteko neurriak hartu eta printze berria zarela onar zezaten, irabazitako lurretan jendearen memoria historikoa gogora lezakeen guztia deuseztatu; horretarako, lurra birrindu behar baduzu ere. Alfontso VIII.aren gaztelarrek gauza bera egin zuten nafar mendebaldea inbaditu zutenean, 1200eko konkistan. Lur emankorra beretzeaz gain, itsasorako bidea lapurtu zioten erreinuari, horrekin Nafarroa murriztua ekonomikoki ito zedin. Horrez gain, dorre eta gazteluak suntsitu zituzten; gero, Seguran, Ordizian, Tolosan… euren gerrariak babesteko gotorlekuak eraikitzeko. Euskal Autonomi Erkidegoan hiri nafarrak? Non?

1512ko konkistaren kontakizun ofizial espainiarra gezurtatzeko, Euskal Herriko nafarzale askok bultzatuta manifestazio nazional erraldoienetako bat egin genuen Iruñean, 2012ko ekainaren 16an. Zerbait bizia izan zen, ezberdina; nafar-Diada nazionala. Ilusioa eta herri bakarra sumatzen zen zanpantzar eta herrietako izenak zeramaten jendearen atzean; ustekabekoa izan zen, herri behetik sortua, alderdi politikoek babestua, baina ez ziren protagonista. Behin bakarrik egin zen.

Hala eta guztiz ere, Nabarraldek ez du etsi. Memoria historikoa, identitatea, estatua izanaren oroimena, kultura, euskara… Modu xume eta tartekako kontraesanak eta guzti, herri honek bere izanaren kontzientziarik ez badu, akabo herria, akabo estatua eta akabo justizia soziala.

Oroimen lekuak, ikurrak, euskal-nafarrona den iruditeria osoa desitxuratzeko lanean jarraitzen dute gobernatzen gaituzten bi estatuek. Orreagan, adibidez, baskoiak irabazle izan baziren ere, Roldan eta Karlomagnoren gorazarre irudiak daude soilik. Baskoiek irabazi eta ondoren Iruñeko erresuma sortu zutela gogoratzen duen eskulturarik ez, arte lanik ez, bertan gertatutako pasarte historikoak kontatuko dituen mezurik ez. Zer geratzen da euskararen oroigarri Tafallan? Zer dago Nafarroa zenaren garaia oroitzen duenik Bilbon? Malmasingo gaztelua? Nork ezagutzen du hori?

Nafarroa Bizirik ekimeneko jendea burdinazko xaflak jartzen ari da gure oroimen lekuak bistarazteko, Cisnerosen aginduz bota ziren harrizko dorreen oinetan. Testu txiki batekin gogoratzen dute eraikuntzen historia, esanahia eta garrantzia. Xafla hauek lurralde osoan zehar daude, nafar gazteluak Euskal Herri osoan zehar eraiki baitziren euskaldunon defentsarako.

Burdinazko informazio taula hauek, gure izanaren memoria erakutsi besterik ez dute egiten. Ez dira suntsiketa masiborako armak. Kultura eta identitatea berreskuratzeko lagungarri, besterik ez. Bada, oraintxe, rotaflexez armatutako gerrari batzuek ondotik ebakitzen ari dira xafla horiek. Etsaiari min handia ematen dio 36ko oldartze faxistak bide bazterretan ezkutatu zutena argira ateratzeak; eta bistan denez, herri inbaditua garela eta subiranoa izateko ehunka mila nafarrek bizia eman dutela burdinazko xafla batean idatziz gogoratzeak ez die, bada, min gutxiago ematen. Zergatik ote?

Kazeta: nabarralde

Zuzendaria: Angel Rekalde
Editorea: M. Mindegia
Diseinua: Nabarralde

Laguntzaileak: Luis Mª Martínez Garate, Elias Mendinueta, Mirari Bereziartua, Xabier Irujo Iñaki Aldekoa, Lola Cabasés Hita, Bingen Amadoz, Ana Telletxea Beñi Agirre, Pako Aristi

Datorrena ikusgarria izango da

Pako Aristi

Hainbestek pentsatzen duguna salatu dute Angel Rekaldek eta Koldo Martinez Garatek artikulu eder batean, Kataluniaz dugun jarreraz: «Ez dugu sumatzen, ustezko gure alderdi politiko eta sozialen aldetik, gogoeta errealista eta seriorik. Alderdiek, sindikatuek, enpresario elkarteek edo erakundeek ez dute plazaratu inongo dokumentu, pentsamendu edo norabiderik. Unibertsitateak isilik daude, euren auto-onespenaren zilborrari so. Kalean usaintzen da espektazio puntu bat, gatazkak zein aldaera eta konponbide izango duen ikusteko. Ikuskizun gisan begiratzen da guztia, ez sostengu eta elkartasun keinuekin [...]».

Eta ez da hori bakarrik: edozeinek ikusten du bileretan, hitzaldietan, kafearen orduko solasaldietan etsipen astun bat hedatu dela, harridura pisu bat noraez honen aurrean, ezin sinestu bat urteetan han-hemenka militatu eta itxaropenez bizi izan direnen aurpegietan. Hedabideetan kasik komikoak dira ezarri dizkiguten epitetoak: «euskal oasia», «euskal lozorroa», «impasse» batean gaudela, edo «bypass» baten beharrean.

Euskal Herria erreta dago oso, gogaimenaren galbidean murgilduta itotzeko zorian; baina, halere, ez dago amore emateko prest. Jendeak ez du jendarte mutu multzo soila izan nahi, herri baten parte baizik, etorkizuna eskuratuko duen estrategia zabal eta sakon baten parte izateko desioa du odolean, lokarturik, baina bizirik oraino. Eta ezer gutxi beharko da desio hori sutan jartzeko, denak harritzeko moduan.

Jendea gauza hauetaz ohartu da azken lau urte hauetan: manifestazioen egutegia zaharkitua geratu dela, urtarrileko presoena, martxoko aberri egunarena, Gure Esku Dago ekainean, irailean zeozer eta abenduaren 3koa, marmotaren egun amaiezin batean harrapaturik gaudela. Askatasuna modu serio batean nahi duen herriak ez duela urteetan energia soziala eskean xahutzen. Manifa eske hutsa da, eta gurean tradizio bihurtu diren mikro-manifak are hutsalagoak, egunkarietan orri erdia betetzeko aitzaki, inoperantzia orokorraren estalpe, eta ez dute botere zentrala ikaratzen.

Otegiren askatasuna eskatuz 20.000 lagun bildu ziren, euskaraz bizi nahi dut oihukatuz 4.000, Sarek urtarrilean antolatutakoan 50.000 lagun gutxiago ziren aurreko urtean baino, eta Gure Esku Dago-ren kanpainan iaz baino 90.000 gutxiago. Propaganda itzela jaso zuten deialdi guztiek, baina publizitateak ezin du estali luzaro estrategia ezaren zuloa. Beti manifestatzen dabilen herriak ez du bere ezintasuna baino manifestatzen; moralari ozta-ozta eusteko daukan azken iltzea da.

Zeren eta jendea ohartu baita zifra hauen atzean dagoenaz: *Harri-kartoizko* politika bat, arazorik konpontzen ez duena. Arazo nagusia (nazionala) baztertuz eginiko konponbide partzialekin ez goazela inora, garrantzia urriko basamortu bilakatu gaituela, eragiteko ahalmen bako politikaren eredu. Lau urte aski izan dira, ezker abertzalearen apustua nobedadetzat har badaiteke, bide instituzionala bide mortua dela baieztatzeko, inorako ibilbidea. Jendea ohartu da erakunde hauek gainditu ezean asfixia ziurra daukagula herri gisan.

Euskal sistema autonomikoari oso urte gutxiko bizitza geratzen zaio; espainolistak salbu (zerbaitengatik izanen da) ez du inor asetzen aspaldi. PNVk hori badaki, baina hilzorian dagoenaren osasun egoera ezkutatu egiten du. Ezker abertzaleak, berriz, ez du asmatu iragarri zituen helburuekin, jendea ilusionatzea, aktibatzea, indarrak metatzea, ezta independentziaren pedagogian ere. Batez ere honetan. Lagun izoztu asko utzi dituzte. Deslilluraturik.

Betiko *guardia zaharra* ikusi dugu, mezu higatuak, betiko kontrol-nahi itxia, etsigarria. Eta askori CUP miresten dutela entzun arren, hautagaiek legealdirik ez errepikatzeko CUP-en erabaki miresgarriaz ahaztuta, Bildu/Amaiurreko hautagai gehienak errepikatu nahian dakuskigu. Are gehiago: CUP ez da Espainiako hauteskundeetara aurkeztu, koherentzia estrategikoari omen eginez. Espainiako sistema politikoa ez da gurea, adieraziz; gu ez gaude hor. Eta erne Espainiako politikoen ergelkeria kritikatzean, horrek ergelago egiten baikaitu gu, ergel batzuen mende 500 urte daramatzagun unean. Haiengandik askatzean soilik demostratuko duzu azkenik haiek baino azkarrago bihurtu zarela.

Jendea ohartu da honetaz ere: alderdi politikoek beren burua baino ez dutela hobesten, eta herriaren berezko dinamika batzuk zapuztu behar badira eurak hobeto egoteko, zapuztuko dituztela errukirik gabe. Euren alderdien osasunari begiratzen diotela, horrek herriari minbizia ekarriko badio ere axola gabe. Ez dugu Euskal Herri osoari mintzo zaion buruzagirik une honetan, zatika funtzionatzen du haien garunak, eta alderdiaren pribilegioetan kukututa.

Baina gertatuko da zerbait, noiz ez dakit. Itsu egon behar da ez ikusteko. Hedabideen zigor eremua ere, ikusezintasunarena, gainditu egingo du. Jendea politikoen zain egoteaz aspertu da, eta bi gauza nahi ditu une honetan; prest dago horietarako aspaldi:

-Ekimen sakonagoak, erradikalagoak, handiagoak.

-Gauza praktikoak lortzen direla ikustea.

Euskal Batzar Nazional bat sortzeko tan dabil. Eta irekiko da gero eta ekimen kualitatiboen eta biszeralagoen aroa: herri honek ETB2 desagertzea eskatuko duena, espainolari dihoazkion diruak euskarari itzuliz; espainierazko dokumentazio publiko guztiaren iraungitze data bat ezarriko duena; euskara konplexurik gabe hedatua, derrigortua eta beharrezkoa egingo duena; hezkuntza testuen ikasgai guztiak gure esku jarriko dituena; hemen sortzen den irabazi ekonomiko oro oso-osorik hemen geratuko den unea... *eta abar* luzeko soka dakar atzean.

Jendea mugitzen hasi da, politikoengan aurkitzen ez duen lidergoa bere indar propioekin sortzen eta antolatzen. Politikoek aurrean eduki uste duten gizartea, gizarte otzan, inozo eta erraz engainagarri hori jadanik ez da existitzen. Gizarteak ez ditu ezagutzen politikoak, eta hori adierazteko bide bat aurkitzea baino ez zaio falta. Politikoak hasi dira oinazpian kilimak sentitzen, ezezaguna duten hotzikara bat, behetik gora datozen inurrien ausikia.

BERRIA

nabarralde
kulturekimenaketasustapenakiniciativasypromocionesculturalesiniciativasetpromotionsculturelles

Eman izena nabarkide izateko
Hazte socio de Nabarralde

info@nabarralde.com · www.nabarralde.com · (34) 948 21 10 57 · Bidankoze kalea 3 · 31014 · Iruñea/Pamplona/Pampelune · NAFARROA-NAVARRA-NAVARRE · DLNA: 2449/2005 · ISNN 1885-2181

Izen - abizenak Nombre y apellidos:

Helbidea / Dirección: **Herria** / Población:

Posta kodea / Código postal: **Hizkuntza** / Idioma:

E-mail: **Tel: Mobilla /** Movil **Finkoa /** Fijo

Banakako kuota / Aportación personal (12€ **Hilero** / Mensuales): **Erakundeak** / Entidades: (288€ **Urteko** / Anual):

Kontu zenbakia / Nº de cuenta (20 dígitos + IBAN):